riek aurkez dezakete errekurtsoa, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean; idazkian helbide bat eman beharko dute, dagozkion jakinarazpenak egin ahal izateko. Era berean jakinarazten da ezen oinarriak bete ez badira edo erabakia lantzeko eta argitaratzeko aginduzko izapideak urratu badira baino ezin dela aurkeztu Lurzatien Baterakuntzako Erabakiaren aurkako errekurtsorik.

Honakoa ere izan beharko dute kontuan errekurtsogileek: Nekazaritzaren Erreformarako eta Garapenerako Legearen 216. artikuluaren arabera, baldin eta gobernu-errekurtso bat ebazteko lurzoruaren peritu-azterketa egin behar bada, alegatutako egintzak frogatzeak eskatzen dituen jarduera perizialen gastuak ordaintzeko besteko kopurua gordailatu beharko da aldez aurretik Probintziako Diruzaintza Nagusian, eta bestela errekurtsoa ez da izapidetzeko onartuko, salbu eta azterketari berariaz uko egiten ez bazaio. Azkenean peritu-gasturik egon ez bada, edo errekurtsoa guztiz edo partez onesteko oinarri izan den peritu-azterketari badagozkio gastu horiek, gordailatutako diru-kopurua berehala interesatuari itzul dakion erabakiko du Nekazaritza foru diputatuak errekurtsoa ebaztean.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko ekainaren 19a.– NEKAZARITZA GARAPENERAKO ZERBITZUAREN BURUA.

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**4.238**

### Iragarkia

Ekainaren 19ko 514/00 Foru Aginduari dagokiona, Iruña Okako udalerriko San José de los Llanos 2 industria-sektoreko Plan Partzialari buruzkoa.

Herrilan eta Hirigintza Saileko Diputatuak ondoan argitaratzen den Foru Agindua eman du:

“San José de los Llanoseko 2 industria-sektoreko – Iruña Okako udalerrian – Plan Partziala ikusi ondoren:

AURREKARIAK

Lehena.- Iruña Okako alkateak, 1999ko maiatzaren 13ko 71/99 zenbakiko Dekretuaren bidez, San José de los Llanoseko 2 industria-sektoreko Plan Partzialaren aldaketari hasierako onarpena ematea erabakia zuen, bai eta aldaketaren espedientea legeak ezarritako epez jendaurrean ipintzea. Horrela egin zen, hurrenez hurren, Araba Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALean, 1999ko maiatzaren 19ko 56 zenbakiko alean, urte eta hilabete bereko 19an Arabako Egunkaria kazetan, eta udalaren iragarki-oholean argitara eman ziren iragarkien bidez zein lurjabeei egindako jakinarazpenen bidez.

Bigarren.- Aipatutako epearen barruan Billares Sam S.A.k izenpetutako alegazioa aurkeztu zen, eta udaleko zerbitzu tekniko-juridikoak irizpena eman zion. Ondoren Udal erakundeak, 1999ko urriaren 7ko udalbatzarraren bilkuran, alegazioa aintzat hartzeko espedienteari behin-behineko onarpena eman zion eta Arabako Foru Aldundiari bidali behin-betiko onarpena eman ziezaion. 1999ko azaroaren 10ean eman zitzaion sarrera hemen.

Hirugarrena.- Plan Partzialak behin betiko onarpena 2000ko ekainaren 16an jaso duten Ordezko Arauen aldaketa garatzen du eta horregatik, espedientea ezin izan da aipatutako egun hori baino lehenago ebatzi. Horrela bada, administrazioaren eraginkortasun eta bizkortasunaren onerako, 2000ko urtarrilaren 18ko dataz, Herrilan eta Hirigintza Saileko Diputatuak Hirigintza Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek egindako txostena igorri zion Udalari, zenbait akats, funtsezko ez zirenak, agerian uzten zituena. Iruña Okako Udalak enpresa sustatzaileak landutako agiriak bidali zituen gero, 2000ko otsailaren 15eko txosten haren oharrei erantzuna emateko asmoz.

Arrazoi horiexengatik, Plangintza, Egitasmo eta Obra Zerbitzuak beste txosten bat landu zuen, 2000ko martxoaren 16ko dataduna, Plana bi aldiz zuzendu beharra eragin duena, eta zuzenketa horietako azkena, Aldundian 2000ko ekainaren 7an sartu zena da txosten honen gaia

OINARRIAK

Lehena.- Plan Partzialak Iruña Okako San José de los Llanos industria-sektorearen garapena egiten du, indarreko planeamendu

rrentes presentar el recurso en el Registro General de la Diputación Foral de Alava, por sí o por representación y expresando en el escrito un domicilio para hacer las notificaciones que procedan, advirtiéndose que contra el Acuerdo de Concentración solo cabe interponer recurso si no se ajusta a las bases o si se han infringido las formalidades prescritas para su elaboración y publicación.

Deberán tener en cuenta los recurrentes que a tenor del artículo 216 de la Ley de Reforma y Desarrollo Agrario, todo recurso gubernativo cuya resolución exija un reconocimiento pericial del terreno, solo cabe ser admitido a trámite, salvo que se renuncie expresamente a dicho reconocimiento, si se deposita en la Tesorería General de la Provincia la cantidad que ésta estime necesaria para sufragar el coste de las actuaciones periciales, que requiera la comprobación de los hechos alegados. El Diputado Foral del Departamento de Agricultura acordará al resolver el recurso, la inmediata devolución al interesado de la cantidad depositada, cuyos gastos periciales no hubieran llegado a devengarse o se refieran a la prueba pericial que fundamente la estimación total o parcial del recurso.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de junio de 2000.– EL JEFE DEL SERVICIO DE DESARROLLO AGRARIO.

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**4.238**

### Anuncio

Correspondiente a la Orden Foral número 514/00, de 19 de junio, en relación con el expediente de Plan Parcial del Sector Industrial 2 de San José de los Llanos, municipio de Iruña de Oca.

El Diputado de Obras Públicas y Urbanismo ha dictado la Orden Foral que a continuación se publica:

“Visto el expediente de Plan Parcial del Sector Industrial 2 de San José de los Llanos, municipio de Iruña de Oca.

ANTECEDENTES

Primero.- El Alcalde de Iruña de Oca, mediante Decreto número 71/99, del día 13 de mayo de 1999 acordó aprobar inicialmente la modificación del Plan Parcial del sector industrial 2 de San José de Los Llanos, así como someter el expediente a exposición pública por el plazo legal, hecho que fue practicado mediante la publicación de los oportunos anuncios en el BOLETIN OFICIAl del Territorio Histórico de Álava número 56, de fecha 19 de mayo de 1999, en el diario El Periódico de Álava del día 19 del mismo mes y año, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y comunicación a los propietarios.

Segundo.- Durante el plazo referido fue presentada una alegación suscrita por Billares Sam S.A, la cual fue informada por los Servicios técnico-jurídicos municipales, procediendo la Corporación Municipal, en su sesión plenaria de fecha 7 de octubre de 1999, a aprobar provisionalmente el expediente estimando la alegación presentada y ordenar su remisión a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 10 de noviembre de 1999.

Tercero.- Dado que el Plan Parcial desarrolla la modificación de las Normas Subsidiarias que ha sido aprobada definitivamente en fecha 16 de junio de 2000, el expediente no ha podido ser resuelto con anterioridad a este día. Por ello, en aras de la celeridad y eficacia administrativas, el Diputado de Obras Públicas y Urbanismo envió al Ayuntamiento, en fecha 18 de enero de 2000, un informe de los servicios técnicos de la Dirección de Urbanismo que ponía de manifiesto diversas deficiencias de carácter no sustancial. El Ayuntamiento de Iruña de Oca remitió una nueva documentación técnica elaborada por la empresa promotora con objeto de dar cumplimiento a las observaciones efectuadas en el mencionado informe el día 15 de febrero de 2000.

Por idénticos motivos fue elaborado un informe, fechado el día 16 de marzo de 2000, del Servicio de Planificación Proyectos y Obras, que ha motivado dos correcciones posteriores del Plan, la última de las cuales, que tuvo su entrada en Diputación el 7 de junio de 2000, es objeto del presente informe

FUNDAMENTOS

Primero.- El Plan Parcial desarrolla el Sector Industrial de Los Llanos de Iruña de Oca, que está clasificado y calificado por el pla-

orokorrak industria eta hirugarren sektoreko erabilera orokorreko lurzoru urbanizagarritzat sailkatzen eta izendatzen duenarena, alegia.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, frogatzen ahal da Iruña Okako Ordezko Arauen Aldaketaren zehaztapenak, Herrilan eta Hirigintza Diputatuaren 512 zenbakiko Foru Aginduak onartu baitzuen behin betiko, betetzen dituela.

Alabaina, Hirigintza-estandarrak betetzeaz den bezanbatean, Planak ez du Lurzoruaren Legeak eskatzen duen herri jabariko espazio libreen gutxieneko azalera jasotzen. Akats honen arrazoia zera da, sektorearen barruan 1.185 m2 inguruko bi sail txiki, errepidearen jabari publikoari dagozkionak sartu direla. Eta kontuan izanik: a) bi horiei espazio libreko tokiko sistema izendapen xehatua eman zaiela; b) sektorearen azalera 226.140 $m^2$ koa dela; eta c) Planak aurrikusten duen erreserbak 23.082$m^2$ hartzen dituela, gune berdeen defizita gertatzen da, 750 $m^2$koa gutxi gorabehera. Akats hori zuzendu egin behar da, neurri txikikoa izanagatik funtsezkoa izan ez arren.

Hirugarrena.- Gainerakoan, Plangintza, Egitasmo eta Obra Zerbitzuak emandako txostenak dioenari jaramon eginez, Plan Partzialak zazpi alderdi zuzendu behar ditu. Horietako lehena aurreko oinarrian azaldutakoarekin guztiz bat dator .

Bigarren eta zazpigarren puntuen arterko testuak honela dio hitzez hitz: “2. Egitekoa den N-1 autobidearen eta A-2622 errepideko Iruña Okako sahiesbidearen zorgunea gordetzeaz den bezanbatean:

a) A-2622 errepidean egitekoa den Iruña Okako saihesbidearekin mugakide den Plan Partzialaren eremuaren aurrealdean, eremu horretan egitekoa den lubetaren ezpondaren oinak atzera sartu beharko dira, errepidearen zorgunetik kanpora gelditzeko adina. Aipatutako errepidetik arestiko eremura iristeko erdilotunearen 2 Ardatzarekin muga egiten duen eremuaren aurrealdean ere bete beharko da baldintza hori. Horretarako, hala errepidearen lur-berdinketaren nola errepide horren eta N-Ien arteko erdilotunearen eta lotunearen kanpoko ertz gisa, Foru Aldundiak onartutako proietuetan aurreikusten direnak hartuko dira, eta ez da onartuko obraren muga hori galtzadara hurbiltzerik, aipatutako proiektuetan aurrikusten ez den lursail mugakideko indusketa batek edo arekaren murrizketak eragindakorik.

b) N-I autobidearekin muga egiten duen Plan Partzialaren eremuaren aurrealdean, autobidearekiko paralelo doan “1 bidea” egiteko beharrezkoa den indusketaren lubeta N-Ien Jabetza Publikoko gunearen kanpoko mugatik hasi beharko da; horrela, zainketazonalde horretan, 8 metro zabalerako zerrenda aldakaitza geldituko da, egitekoa den autobidearen lur-berdinketaren kanpoko ertzaren eta Plan Partzialeko eremuan beharrezkoa den indusketaren hasieraren artean. Modu horretan, N-Ien zorgunea “1 bide” horren indusketaren lubetan kokatuko da, eta erabilerari dagokionean, bigarren puntu honen lehenengo lerrokadan zehaztutakoa aplikatuko zaio.

3. Aurreko puntuan xedatu denarekin bat etorriz, 4 eta 5 eraikinak dauden eremuan aurreikusten diren sestretan zuzenketa bat egin beharko da, A-2622 errepidera eta erdilotunearen 2 Ardatzera isurtzen den ezpondak zorgunea hartu ez dezan. Ezponda horren koroatze-kota, perimetro-bidea doan ertz kanpokoenean, hiru bat metro gutxitu beharko da; guztiz posiblea da hori egitea.

4. “Errepideen eragin-eremu” deritzen bi planoetan, UPP-16 eta UPP-16A, UPP-16 planoko babesguneak eta eraikuntzen mugalerroa gorde egin beharko dira, eta UPP-16A planoa ezabatu egin beharko da.

5. Testu Bateratuak aurreikusten dituen burutze-faseei buruz, bai idatzizko agirietakoei bai eta “Burutze aldien Plana” deritzon UPP-15 planoari buruz, esan behar da aurreikuspen hori gutxi gorabeherakoa dela, sarrera-bideak eraikitzeari dagokionean behintzat. Izan ere, horiek Foru Aldundiak onartutako proiektuen barnean daude eta hortaz, beren burutzea, Plan Partzialek nekez aurreikusi eta inolaz ere ezarri ezin ditzaketen baldintzen pean dago.

neamiento general vigente como suelo urbanizable de uso global industrial y terciario.

Segundo.- Analizada la documentación del expediente se comprueba que cumple las determinaciones de la modificación de las Normas Subsidiarias de Iruña de Oca, aprobadas definitivamente mediante la Orden Foral, número 512, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo.

No obstante, respecto al cumplimiento de los estándares urbanísticos el Plan no contiene la superficie mínima de espacios libres de dominio público exigida por la Ley del Suelo. Esta deficiencia es debida a la inclusión dentro del ámbito del sector de dos pequeñas áreas de 1.185 m2, aproximadamente, pertenecientes a la zona de dominio público de la carretera. Dado que: a) las mismas se han calificado pormenorizadamente como sistema local de espacios libres; b) la extensión del sector es de 226.140 m2; y c) la reserva prevista por el Plan alcanza los 23.082 m2, se produce un déficit de zona verde de 720 m2 aproximadamente, deficiencia que ha de subsanarse, pero que, en atención a la entidad de la misma, no tiene carácter sustancial.

Tercero.- En otro orden de cosas, en atención al informe emitido por el Servicio de Planificación, Proyectos y Obras, el Plan Parcial debe ser corregido en siete aspectos, de los cuales el primero coincide íntegramente con lo señalado en el fundamento anterior.

El texto de los puntos 2 a 7 es del siguiente tenor literal: “2. En cuanto a la preservación de la Zona de Servidumbre correspondiente a la futura autovía N-1 y a la futura variante de Nanclares en la carretera A-2622:

a) En lo que se refiere al frente del ámbito del Plan Parcial colindante con la futura Variante de Nanclares en la carretera A-2622, deberán retranquearse los pies de talud del terraplén previsto en dicho ámbito lo suficiente como para que queden fuera de la Zona de Servidumbre de dicha carretera. Dicha condición debe ser igualmente tenida en cuenta en lo que se refiere al frente del ámbito que linda con el Eje 2 del semienlace de acceso al mismo desde la citada carretera. A estos efectos, debe considerarse como arista exterior de la explanación de dicha carretera, así como del semienlace y del enlace de ésta con la N-I, la prevista en los Proyectos aprobados por esta Diputación Foral, no siendo admisible la aproximación de dicho límite de obra hacia la calzada, motivado por una excavación del terreno colindante no prevista en los citados Proyectos, o por una reducción de la cuneta tampoco contemplada en los mismos.

b) En lo que se refiere al frente del ámbito del Plan Parcial colindante con la autovía N-I, el talud de la excavación necesaria para la ejecución del “vial 1” que discurre paralelo a dicha autovía, deberá arrancar desde el límite exterior de la Zona de Dominio Público de la N-I, quedando así una franja inalterada de 8 metros de anchura, correspondiente a dicha zona de policía, de separación entre la arista exterior de la explanación de la autovía prevista y el citado arranque de la excavación necesaria en el ámbito del Plan Parcial. De este modo, la Zona de Servidumbre de la N-I quedará situada en el talud de la excavación del citado “vial 1” sin que deje de serle de aplicación lo especificado en el párrafo inicial de este segundo punto en cuanto a su utilización o uso.

3. Deberá realizarse una corrección en el estado de rasantes previsto en la zona del ámbito donde se ubican los denominados edificios 4 y 5, de forma que el terraplén resultante que derrama sobre la carretera A-2622 y sobre el Eje 2 del semienlace no invada la zona de servidumbre, conforme a lo estipulado en el punto anterior. Ello obligará a disminuir la cota de coronación de dicho terraplén en su borde más exterior por donde discurre el vial perimetral, del orden de unos tres metros, lo cual es perfectamente posible.

4. En relación con los dos planos denominados “Zonas de Afección Carreteras”, UPP-16 y UPP-16A, deberá mantenerse las zonas de protección y línea límite de edificación correspondientes al plano UPP-16, debiendo eliminarse el plano UPP-16A.

5. En cuanto a las fases de ejecución previstas en el Texto Refundido, tanto en su documentación escrita, como en el plano UPP-15 denominado “Plan de Etapas”, debe hacerse constar que dicha previsión ha de entenderse como meramente orientativa, al menos en lo que se refiere a la construcción de los accesos, ya que los mismos se encuentran incluidos en proyectos aprobados por esta Diputación Foral, y por tanto su ejecución queda condicionada por una serie de factores que en ningún caso pueden ser impuestos, y difícilmente ser previstos, dentro del Plan Parcial.

6. Testu Bateratuaren idatzizko agiriak esaten duenez, Zerbitzu honek martxoaren 16an emandako txostenean xedatutakoa bete egiten da, alegia, zerbitzuen (edateko ura, saneamendua, elektrizitatea, eta abar) horniketa-sareek ahal delarik Plan Partzialaren eremuaren barruan joan behar dutela, eta zerbitzu horietako bat edo guztiak daramatzan bideratzearen eta mugakide diren errepide edo errepide-adarren arteko paralelismoa ezinbestekoa denean, bideratze hori Zerbitzu Orokorren Eremuan zehar egin behar dela, Araba Lurralde Historikoko Errepideen 20/1.990 Foru Arauak, ekainaren 25ekoak, ezartzen duen moduan. Hala ere, UPP-11 eta UPP-13 planoetan ikus daitekeenez, xedapen hori ez da betetzen estolderia-sarea eta ur-horniketaren sareari dagokionean. Beraz, sare horiek atzera eraman beharko dira, A-2622 errepidetik eta erdilotuneko 2 Ardatzetik urrunduz, ezarritako mugapena benetan betetzeko moduan urrundu ere.

7. Plan Partzialaren eremuan, A-2622 errepidean egitekoa den Iruña Okako saihesbidearekiko lotunearen adarrak lotzen dituen biribilgunetik hasita zehazten den barne-bideteriari dagokionean, aparkalekuetako sarrera-bidean, aipatutako biribilgune nagusia eta bide hori jarraituz aurkitzen den hurrengo biribilgunearen artean dagoen lotura oro, ezabatu egin beharko da. Orobat, dagozkion planoetan azaldu egin beharko da biribilgune nagusia inguratu eta zerbitzuko bide perimetralerako irisbidea ematen duen bidean ezarri beharreko itxitura, eta adierazi egin beharko da ipinitako instalazioen horniketarako edo zerbitzurako ibilgailuek bakarrik erabili ahal izango dutela."

Laugarrena.- Hondarrekoz, ur-horniketari dagokionean, Hidrogeologia Atalaren txostenaren arabera, beharrezkoa da:

A. Eskariari egokitutako eta bere osagarri izango den arauketa egitea, Sektorean izango diren jarduerek beharko duten gehienezko emaria eta suteetarako ur-hartuneak kontuan hartuta.

B. Iruña Okako zundaketetatik Iruña Oka, Ollávarre, Villodas, Trespuentes eta San José de los Llanoseko 1 Sektorea urez hornitzen dituen Sistemara lotzeko baimena eskatzea.

Horien guztien ondorioz, dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT:

Lehena.- San José de los Llanoseko 2 Industria-sektoreko Plan Partziala, T.H.I. Alavak sustatu eta Iruña Okako Udalak izapidetutakoa behin-betiko onartzea, ebazpen honetako bigarren, hirugarren eta laugarren oinarrietan adierazitako aldaketekin.

Bigarrena.- Adierazi diren akatsak ez dira funtsezkoak, eta hilabeteko epean, jendaurrean ipintzeko izapidea berriz egin beharrik gabe, horiek zuzendu eta espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio Planaren betearaztekotasuna aldarrikatu eta dagozkion eginbideak egin eta argitara eman dezan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, berori eman duen organoaren aurrean, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzen-zuzenean Euskal Autonomi Elkarteko Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko auzien salan aurka jo, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean, honako legeetan hurrenez hurren xedatutakoaren arabera: Administrazio Publikoen Araubide eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutakoak, 116 eta 117 artikuluetan, eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien Jurisdikziokoak, 46.1 artikuluan. Hori guztia, bidezko iritzitako beste edozein errekurtso jarri ahal izatea kendu gabe.

Herrilan eta Hirigintza Diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

6. A pesar de que en el documento escrito del Texto Refundido se manifiesta cumplir con lo establecido en el informe de este Servicio de 16 de Marzo en lo relativo a que las redes de abastecimiento y/o suministro de los distintos servicios previstos (agua potable, saneamiento, electricidad, etc...) deben discurrir preferentemente por el interior del ámbito del Plan Parcial, debiendo, en aquellos casos en que sea imprescindible el paralelismo entre alguna canalización que contenga alguno o todos esos servicios y alguna de las carreteras y/o ramales colindantes, llevar dicha canalización por la Zona de Servicios Generales, tal y como establece la Norma Foral 20/1.990, de 25 de Junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Alava, puede observarse en los planos UPP-11 y UPP-13 que dicha limitación no se respeta para la red de alcantarillado y la red de distribución de agua. En consecuencia, deberán retranquearse dichas redes alejándose lo suficiente de la carretera A-2622 y del Eje 2 del semienlace, como para que se cumpla efectivamente la citada limitación impuesta.

7. En cuanto a la vialidad interior definida en el ámbito del Plan Parcial a partir de la rotonda a la que conectan los ramales del enlace con la futura variante de Nanclares en la carretera A-2622, deberá suprimirse toda conexión existente en el vial de entrada a la zona de aparcamientos, entre la rotonda principal anteriormente citada y la siguiente rotonda que se encuentra en el sentido de la marcha de dicho vial. Asimismo, deberá explicitarse en los planos correspondientes el cerramiento a establecer en el vial que circunscribe a la rotonda principal y permite el acceso al vial perimetral de servicio, indicando que el uso del mismo quedará reservado exclusivamente a los vehículos destinados al servicio y/o abastecimiento de las instalaciones implantadas."

Cuarto.- Finalmente y en cuanto al abastecimiento de agua, de acuerdo con informe de la Sección de Hidrogeología es preciso que:

A. Se habilite una regulación complementaria y ajustada a la demanda, dado el caudal punta estimado para las actividades que se van a desarrollar en el Sector y de la necesidad de la instalación de hidrantes para incendios.

B. Teniendo en cuenta el fin lúdico-comercial que se promueve, se solicite la autorización de enganche del Sistema que desde los sondeos de Nanclares de la Oca suministran agua a Nanclares, Ollavarre, Víllodas, Trespuentes, y el Sector-1 de San José de los Llanos.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del sector industrial 2 de San José de Los Llanos, formulado por T.H.I Alava, S.A y tramitado por el Ayuntamiento de Iruña de Oca, con las modificaciones indicadas en los fundamentos segundo, tercero y cuarto de la presente resolución.

Segundo.- Las deficiencias apuntadas no tienen carácter de sustanciales, por lo que una vez cumplimentadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, en el plazo de un mes, sin necesidad de someterlo a un nuevo tramite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en los Boletines Oficiales del País Vasco y del Territorio Histórico de Álava."

Contra la presente Resolución podrá ser interpuesto recurso potestativo de reposición ante el mismo Órgano que ha dictado la misma, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación, o ser impugnada directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, así como en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Todo ello, sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

El Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.